



Javier de Aymerich eta Richard Oribe, elkarri bostekoa ematen, Londresko Paralinpiar Jokoetan. BERRIA

Txapelketen lehiatik urrun, terapia gisa hasi zen Richard Oribe igeri egiten. Orduetik, Paralinpiar Jokoetan dominak pilatzen aritu da, Javier de Aymerich entrenatzailearekin.

# Terapiatik dominetara

## Beñat Los Arcos

**S**ei Paralinpiar Jokotan lehiatu eta hamazazpi domina kolkoratu. Aurkezpen askorik ez du behar Richard Oribe igerilariak. Erreferente bat da bere aurkariarentzat, bera gainditzea da erronka. 38 urterekin Londresko Jokoetan bi domina lortuta, bere mailan munduko onenen artean dagoela berretsi du donostiarrak. «Eta hala jarraitu dezake oraindik». Itxaropen handiz begiratzen du etorkizunera Javier de Aymerichek, Oriberen entrenatzaileak. «Dominen lehiak beharko luke Rio de Janeiron, 2016an».

Lehiatik urrun, terapia gisa hasi zen Oribe igeri egiten. Garun paralisarekin jaioa, horren eragina murrizten saiatu zen zenbait ariketa eginez. Horrela konturatu zen oreka mantentzeko zituen arazoak, uretan desagertu egiten zirela. Eta kirol ezberdinak probatu ondoren —futbola atezain gisa, atletismoa pisu jaurtiketan...—, igeriketa gustatu zitzaion gehien. Bere lehen txapelketan lortutako emaitzak igeri egiteko gogo handitu baino ez zuen egin. «Ona zela konturatu

zen, eta denoi gustatzen zaiguzer baitetan ona izatea».

Hasierako sentsazio horiek egiazkoak zirela frogatu zuen behala. Bartzelonako Paralinpiar Jokoetan estreinatu zen 1992an, eta lau urte beranduago hasi zen dominak pilatzen. Atlantako Jokoetan, hiru urte eta bi zilar lortu zituen. Gorenean zegoen jada. Baina inork gutxik ezagutzen zuen. Aymerichek berak ere ez, igeriketarekin oso lotura estua izan arren. «Existitzen zenik ere ez nekien». Oriberen entrenatzaileek hitz egin zioten berari buruz. Eta laguntzeari ekin zion, haren inguruan talde bat sortzeraino: Konporta. Oribe bere prestaketa burutu ahal izatea zen helburua.

1997an elkar ezagutu zutenetik, banaezinak dira Aymerich eta Oribe. «Nire seme zaharra baltz bezala ikusten dut». Euren lotura ez da soilik profesionala. «Beste gauza asko ere irakatsi dizkiot: informatika, argazkigintza...». Oso azkar ikasten baitu.

Londreskoak laugarren Paralinpiar Jokoak izan dituzte elkarrekin. «Ilusio askorekin joan ginen, prestaketa on bat eginda». Izan ere, urtea lasai antolatzeak aukera izan zuten, igerilariak be-

rehala lortu baitzituen Jokoetarako gutxieneko markak. Jokatu zuen lehenengo txapelketan, Londreserako txartela berea zuen jada.

Etxean bezala sentitu ziren Londresen, oso gustura. «Antolakuntza bikaina izan da». Instalazioak oso onak izan direla dio Aymerichek, eta igerilekua, bereziki, oso azkarra. Baina harmailek harritu dute gehien. 17.000 lagu-

## ↓ Nortasun agiria

■ **Izena.** Richard Oribe Lumbresas.

■ **Jaioterria.** Donostia.

■ **Jaioteguna.** 1974ko otsailak 22.

■ **Maila.** S4. Garuneko paralisia du.

■ **Lorpen nagusiak.** Hamazazpi domina irabazi ditu Paralinpiar Jokoetan: urrezko bederatz, zilarrezko sei eta brontzezko bi. Hemezortzi domina irabazi ditu ere munduko txapelketetan: urrezko zortzi, zilarrezko zazpi eta brontzezko hiru.

■ **Bestelakoak.** 48 aldiz ondu du munduko markaren bat.

nentzako lekua izanda ere, egunero bete dira. «Baina ez ikasle eta jubilatuekin, kirolari horiek miresten zituzten familiekin baizik». Olinpiar Jokoetako izarrak —Michael Phelps edo Ryan Lochte kasu— lehiatzean soilik beteko zirela uste zuen entrenatzaileak. «Horiek bezala, goi mailako kirolari gisa ikusten dituzte paralinpiar kirolariak ere».

Giro horretan, dominak pilatzen jarraitu du Oribe. Zilarra lortu zuen estilo libreko 100 metroko proban, eta brontzea 200 metrokoan. «Bi domina kolkortzea lorpen handia da». Gero eta zailagoa du podiumera igotzea, eta asko gozatu dute egindakoarekin. Baina baita dominarik lortu gabe ere. Laugarren izan zen estilo libreko 50 metroko proban, eta konturatu zen gertukoek asko baloratzen dutela bere lana. Txapelketei heldutasun gehiagorekin egiten die aurre orain. «Londresen ikusi dut askoz ere metodikoagoa eta ordenatuagoa dela». Gainontzeko kirolariarentzat eredu garrria dela uste du Aymerichek.

«Kirolari aparta da». Entrenatu dituen igerilari guztien artean, ez du bera bezalakorik ikusi pres-

tatzaileak. «Oso arduratsua da entrenatzeko garaian». Hainbeste urtez goi mailan egon ondoren, egunero lanean jarraitzeko motibazioa mantentzen du Oribe. «Oso maila handiko kirolarien ezaugarri bat da, beti hobetzeko nahi hori».

Igerilari donostiarrak munduko onenen artean dago oraindik. Hala izango zela bazekien bere entrenatzaileak, zientziari esker zein mailan aritu daitekeen ikus



Kirolari eredugarria da Oribe, oso metodikoa eta arduratsua bere prestaketarekin»

«Paralinpikoak goi mailako kirolari gisa ikusten hasi dira, eta ez gizajo gisa»

JAVIER DE AYMERICH  
Richard Oriberen entrenatzailea

dezaketelako. «Horregatik dakit 2016ko Paralinpiar Jokoetan dominen lehiak beharko lukeela». Oribe igeriketan jarraitu behar duela uste du Aymerichek. «Munduko bost onenen artean egonda, ez dago zertan erretiroan pentsatu». Igeriketa baita bere mundua, eta hari lotuta egotea nahi du entrenatzaileak, gozatzen duen bitartean.

Baina izango dute etorkizuneko pentsatzeko denbora. Oraingoz, atsedean hartuko dute, nekagarria izan baita prestaketa. Palmán (Herrialde Katalanak) izango da orain, lagun baten ezkontzan. Donostiara itzultzean, berriz, ia hilabete oso bat egongo da entrenatu gabe. «Igeri egiteko gogoa sartzen zaion arte». Une honetan, neke psikologikoa handiagoa baita, neke fisikoa baino.

Gaur egun, kirolari ezaguna eta miretsia da Oribe. Jende askok gelditzen du kalean, bere trizikloan doala. Paralinpiar Jokoak telebistaz ikusteko aukera izan da lehenengoz, eta aurretik ezagutzen ez zuen ikusle askok bidali dizkiote mezuak. «Paralinpikoak goi mailako kirolari gisa ikusten hasi dira, eta ez gizajo gisa». Gorrotatu egiten dute *zein meritua duen* esapidea. Euren meritua gainontzeko kirolarien berbera dela uste dute.

Gipuzkoako igerilekuan, elbarritasuna duten kirolarien egoera asko normalizatu dela uste du Aymerichek. «Gainontzekoak ohitu egin dira eurekin lehiatzearekin». Elbarritasuna duten gazteek, kirolean hasteko ez dute arazo askorik. «Serioago hartu nahi dutenean dauzkate zailtasunak». Lorpenak izan behar dituzte laguntzaren bat jaso aurretik. «Eta horrela oso zaila da urrutira iristea». Gainera, entrenatzaile gutxi daude, ez baitute laguntzarik jasotzen. «Ez dira musutruk ariko lanean».